

MOZIOA

EAJ/PNV eta PSE-EE-PSOEn baterako mozioa

[Código]/[Edición]

HOJA 1.

AP8 autobidea gure eskualdean bidaiatzeko bide arinik nagusiena da, N-634 errepidearen alternatiba bakarra izanik. N-634 errepidea zaharra da eta hiriguneak zeharkatzeaz gain, oso trafiko-dentsitate handia jasan behar izaten du, eta sarri askotan larregi luzatzen dira leku batetik bestera joateko denborak.

Edozein modutan ere, AP8 autobidea ordaindu beharrekoa denez gero, berori erabiltzeak gastu handia suposatzen du Durangaldeako erabiltzaileentzat.

Egia da Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzak eta deskontuak ezarri zituela, baina bidesarien tarifak garestitu egin direnez gero, gure ustez beharrezkoa da garai hartan ezarritako laguntzak eta deskontuak berraztertzea, eskualdeko erabiltzaileei baldintza ekonomiko hobeak eskaini ahal izateko.

Horregatik guztiagatik ondorengo mozioa proposatzen dugu:

ERMUKO UDALAK bere kezka adierazten du, A8 autobidearen bidesariaren prezioa igo ondoren, gure eskualdeko ohiko erabiltzaileentzako gastua areagotu egin delako.

Hori horrela, ERMUKO UDALAK honakoa eskatzen dio Bizkaiko Foru Aldundiari:

- Beharrezko neurriak har ditzala, hobariak aplikatuz, bide alternatiboak hobetuz edota beste proposamen batzuen bitartez, A8 autobidearen ohiko erabilerak eskualdeko erabiltzaileentzat suposatzen duen gastu handia arintzeko.
- Horretarako, eta lehenbailehen, azterketa bat egin dezala Durangaldeako A8 autobidearen ohiko erabiltzaileentzako kostua murrizteko konponbide-aukera ezberdinen ondorioak (ekonomikoak eta trafikoari dagozkionak) aztertuz.

Ermuan 2016ko urtarrilaren 22an

EAJ/PNVtik

PSE-EE-PSOEtik

Sin.: Jol Gisasola Garaik

Sin.: Juan Carlos Abascal